

¿Es de los nuestros?

Con cierta frecuencia escuchamos o, incluso se nos pueda escapar, una expresión que, aunque en apariencia sea inocua, encubre y refleja al mismo tiempo, un retrato muy preocupante del alma humana. Me refiero a la expresión: ‘es de los nuestros’, ‘no es de los nuestros’...

No es fácil acotar ni describir con precisión el alcance de un pronombre posesivo, cuando es utilizado de esta forma. Ahora bien, de lo que no cabe duda es de que se traduce en rechazo o en aceptación de nuestro prójimo. Se trata de un sentimiento poco definido que nos lleva a percibirlo como ‘de casa’ o como ‘extraño’, cuando no como enemigo. Es un mal que salpica la política, pero que la trasciende claramente, llegando a todos los ámbitos: deporte, cultura, amistad, religión, familia...

Nos movemos en el terreno de la visceralidad, de forma inversamente proporcional no solo a la amabilidad, sino también a la racionalidad. En efecto, el sentimiento de que alguien no sea ‘de los nuestros’, se traduce en dureza de juicio, en antipatía, en indiferencia... En última instancia, el pronombre posesivo de la primera persona del plural corre el riesgo de no significar tanto el amor a lo propio, cuanto el recelo a lo que viene de fuera de nosotros.

El encasillamiento de cuantos nos rodean bajo el parámetro de filias y fobias, refleja y camufla una notoria pobreza de pensamiento. La sospecha prevalece sobre la confianza, al tiempo que los cotilleos se fundan en los prejuicios, de forma similar a como los prejuicios brotan de los estereotipos... Por su parte, los epítetos sustituyen a los sustantivos, y la proliferación de los argumentos *ad hominem*, termina por excusarnos del deber inexorable de esforzarnos por discernir entre la verdad y la mentira, lo bueno y lo malo, lo prudente y lo imprudente...

Este fenómeno llega a tal punto que las adscripciones tribales se convierten en la inspiración principal para descubrir la propia personalidad: “¡somos hutus!” o “¡somos tutsis!” (permítaseme esta referencia étnica emblemática). La propia autoestima acaba fundándose en el mero lugar de nacimiento, en la adscripción a una ideología, en el cultivo de nuestros hobbies, en la pertenencia a un sistema político cultural, etc. De todo esto se desprende no solo el deterioro de las relaciones humanas, sino sobre todo, el empobrecimiento de la propia personalidad.

Hacer esta reflexión en el día de Navidad nos lleva a recordar que el misterio de la revelación de Dios y el de la redención del género humano, se encontraron de forma notoria con la misma dificultad: «*Vino a su casa, y los suyos no lo recibieron*» (Jn 1, 11). El Evangelio según San Juan es, de forma especial, el que más subraya el drama de la acogida o el rechazo del pueblo de Israel al Hijo de Dios. En uno de los momentos cumbres de este Evangelio, después de la proclamación de la parábola del Buen Pastor, podemos leer: «*Jesús les replicó: “Os he hecho ver muchas obras buenas por encargo de mi Padre: ¿por cuál de ellas me apedreáis?”. Los judíos le contestaron: “No te apedreamos por una obra buena, sino por una blasfemia: porque tú, siendo un hombre, te haces Dios.”*» (Jn 10, 32-33).

Dicho de otro modo, una parte importante de aquella sociedad judía a la que se dirigía Jesucristo, esperaba un mesías que fuese plenamente ‘de los suyos’, con la estrategia de verlo

plenamente 'integrado' en sus expectativas políticas, sociales y religiosas. Pero claro, el reconocimiento de la identidad divina de Jesucristo lo hacía inmanipulable. No es el Mesías el que debe ponerse al servicio de la causa judía, sino que es el pueblo elegido el que, reconociendo en Jesús de Nazaret al enviado del Padre, se ha de poner en manos de Yahvé para ser el germen del Reino de Dios en el mundo entero.

La clave la encontramos en la adoración a Jesucristo. Adorar a Jesucristo, reconociendo en Él al Hijo único del Padre, enviado al mundo por nuestra salvación, supone redefinir los objetivos de nuestra vida, relativizar nuestras propias ideologías, matizar nuestras sensibilidades, reordenar nuestras actitudes y comportamientos, etc. Por el contrario, si nos limitamos a ver en Jesús de Nazaret un personaje histórico muy atrayente e interesante, pero sin reconocer su identidad divina (o refiriéndola solo de una forma metafórica); entonces, inevitablemente, lo rechazaremos o lo haremos 'de los nuestros'.

La cuestión determinante no es solo si Jesucristo es 'de los nuestros' —en la encarnación se ha desposado para siempre con nuestra carne y nuestra sangre— sino si nosotros estamos dispuestos a ser plenamente 'suyos'. El prólogo del Evangelio de San Juan lo remata de forma inequívoca: «*Vino a su casa, y los suyos no lo recibieron. Pero a cuantos lo recibieron, les dio poder de ser hijos de Dios, a los que creen en su nombre.*» (Jn 1, 11-12). En pocas palabras: Jesús se ha hecho 'nuestro'. ¿Somos nosotros 'suyos'?

Eguberri On guztioi!! Os deseo una Feliz Navidad, en la que la natividad de Jesús sea el centro inequívoco de esta celebración. La Navidad tiene que ser rescatada de la frivolidad. Como decía la Madre Teresa de Calcuta: «*Un corazón que ama es el único belén en el que Cristo quiere venir en Navidad.*»

PD: Un consejo cinematográfico para estas fechas... Me refiero a la película animada "*Se armó el Belén*" estrenada ya hace dos años. Es un buen regalo para niños a partir de seis años, y para adultos dispuestos a entrar por la puerta pequeña de Belén. Me parece una joya del cine familiar navideño.

Hau gutarra al da?

Sarritan entzun ohi dugu, eta inoiz geuri ere atera izan zaigu, itxura batean esanahi gaiztorik izan ez arren, giza arimaren argazki oso kezagarria ezkututzen eta adierazten duen esaldia: "Hau gutarra da", edota "hau ez da gutarra".

Ez da erraza izenordain posesibo baten mugak ondo markatu eta deskribatzea, era honetan erabilia denean. Nolanahi ere, gure lagun hurkoari egiten diogun arbuatzea edota onartzea adierazten du, zalantzarik gabe. Zehaztasun askorik gabeko sentimendua izan ohi da, pertsona bat "etxeko" edota "kanpotar" bezala, edota agian etsai bezala hartzea eramaten gaituen sentimendua. Gaitz honen zipriztinak nabariak dira politikan, baina hedatua dago hortik kanpora ere eta esparru guztietara iristen da: kiroletara, kulturara, adiskidetasunera, erlijiora, familiara...

Barrutik sortzen zaigun bihozkadaren eraginez bizi gara, eta, beraz, juxtu, adeitasunak eta batez ere arrazionaltasunak eskatzen duenaren kontra erabat. Hain zuzen, norbait “gutarra” ez delako sentimendua berari buruzko iritzi gogorra bihurtzen da, ezinikusia, axolarik eza... Azken batean, pluraleko lehenengo pertsonari dagokion izenordain posesiboak geurea maite izateko jarreran baino gehiago, kanpotik datorkigunari buruz mesfidantza izateko arriskuan jartzen gaitu.

Gure ingurukoak geure filia edota fobien ikuspegitik sailkatzeak pentsamenduaren pobretasun nabaria adierazten eta ezkututzen du. Konfiantzaren gainetik errezeloa jartzen da, esamesak aurreiritzietan oinarritzen dira, aurreiritziak, berriz, estereotipoetatik sortzen dira... Bestalde, ezizena erabili ohi da izenaren ordean, eta badirudi behin eta berriz *ad hominem* argudioak erabiltzeak liberatu egiten gaituela egiaren eta gezurraren artean, ongiaren eta gaizkiaren artean, zentzuzkoaren eta zentzugabekoaren artean... bereizteko ahaleginak egin behar izatetik.

Gertakari hau dela eta, ibilian-ibilian, geure nortasun berezia aurkitzeko era edo bide nagusia tribu-adskripzioa gertatzen da: “gu hutuak gara!” edota “gu tutsiak gara” (barka iezadazue aipamen etniko ezaguna den hau). Norberaren autoestima bera jaiotzako leku hutsean oinarritzen da, ideologia jakin bat izatean, geure “hobbiak” lantzean, sistema politiko-kulturaleko partaide izatean, etab. Honek guztiak dakarren ondorioa, giza harremanak galtzen joateaz gainera, batez ere norbere nortasuna pobretzea da.

Gogoeta hau Eguberri-egunean egiteak Jainkoaren errebelazioaren misterioa eta gizadiaren salbamen-misterioa gogoratzea garamatza, eragozpen bera nabaritu izan baitzuten biek: *«Bere etxera etorri zen, eta beretarrek ez zuten onartu»* (Jn 1, 11). San Joanen Ebanjelioa da, bereziki, Israel herriak Jainkoaren Semea onartu edota arbuiatu izanaren arazoa gehien azpimarratzen duena. Ebanjelio honetako unerik garrantzitsuenetako batean, Artzain Onaren parabola aldarrikatu ondoren, honela dio: *«Jesusek esan zien: “Egintza onik asko egin dut zuen aurrean Aitaren izenean; horietako zeinengatik egin nahi didazue harrika?” Erantzun zioten: “Ez zaitugu egintza onak egiteagatik harrikatu nahi, biraio egiteagatik baizik; gizaki izanik, zeure burua Jainko egiten duzulako»* (Jn 10, 32-33).

Beste era batera esanda, Jesu Kristoren entzule ziren judu-gizarte hartako jende askok, erabat “berentarra” izango zen Mesias espero zuten, beren itxaropen politiko, sozial eta erlijiosoetan bete-betean “integratua” egongo zen Mesias bat. Baina, jakina, Jesu Kristoren nortasun jainkotiarra aitortzeak eragotzi egiten zuen hura manipulatu ahal izatea. Ez da Mesias judu-herriaren asmoen zerbitzura jarri behar duena, alderantziz baizik, herri aukeratua da Nazaretoko Jesus Aitak bidalia dela aitortu eta Yahveren esanera egon behar duena Jainkoaren Erreinuaren sustrai izateko mundu guztian.

Horren gakoa, Jesu Kristo gurtzean datza. Jesu Kristo adoratzeko, ordea, eta gure salbamenerako mundura bidalia izan den Aitaren Seme bakarra dela aitortzeak, geure bizitzako helburuak berriro zehaztea eskatzen digu, geure sentsibilitateak argitzea, geure jarrera eta jokabideak zuzentzea, etab. Alderantziz, Nazaretoko Jesusengan pertsonaia historiko erakargarri eta interesgarri hutsa ikusi nahi badugu, baina haren jainkozko nortasuna aitortu gabe (edo, gehienez ere, era metaforiko hutsean aipatuz), orduan, ezinbestean, arbuiatu edota “gutartzat” hartuko dugu.

Kontu honetan erabakigarria ez da, besterik gabe, Jesu Kristo “gutarra” den ala ez – gizakundean gure haragia eta gure odola hartu baititu betiko–, baizik eta gu prest ote gauden benetan “harentar” izateko. San Joanen Ebanjelioko sarrerak garbi adierazten du: «*Bere etxera etorri zen, eta beretarrek ez zuten onartu. Onartu zuten guztiei, berriz, haren izenean sinesten dutenei, alegia, Jainkoaren seme-alaba izateko ahalmena eman zien*» (Jn 1, 11-12). Hitz gutxitan esanda, Jesus “gutarra” egin da. Baina gu “harentarrak” ote gara?

Eguberri On guztioi!! Eguberri-jai Zoriontsua opa dizuet, eta Jesusen jaiotza izan dadila ospakizun honen erdigunea. Arinkeriatik berreskuratu egin behar dugu Eguberri. Kalkutako Ama Teresak zioen bezala: «*Maite duen bihotza da Kristok Eguberritan izan nahi duen jaiotza bakarra*».

Posdata: Hona zinema-alorreko ohar bat jai hauetarako... Duela bi urte estreinatu zuten “*Se armó el Belén*” filmea aipatu nahi dut. Opari ederra da sei urtetik gorako haurrei egiteko, baita Betleemgo ate txikitik sartzeko prest dauden helduentzat ere. Eguberritarako familia-filme zoragarria iruditzen zait.